

Eusko Jaurlaritzak Ertzaintza eta udaltzaintzako 280 postuko LEP bateratua aurkeztu du

LA HAINE-EUSKAL HERRIA :: 22/02/2024

Azken 4 urteetan nabarmen igo da ertzainen kopurua, izan ere, 2020ko irailean Ertzaintzak 7.382 agente zituen eta, lau urte geroago, 7.765 agente.

Eusko Jaurlaritzak, Eudelekin batera, Poliziarako laugarren LEP lan eskaintza publikoa iragarri zuen atzo Bilbon. LEP horrek 280 postu ditu, eta bihar zabalduko da eskaerak egiteko epea. Legealdi honetako laugarren eskaintza da, eta batera egin duten zortzigarrena.

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Segurtasun sailburuak eman ditu deialdiaren xehetasunak: 280 postu horietatik 225 ertzain izateko izango dira, eta 55 udaltzain izateko, 22 herritan. Ertzaintzaren barruan, bost postu oinarritzko eskalakoak izango dira, 140 Ikerketa Kriminala espezialitatekoak eta 80 Bide Segurtasuna espezialitatekoak.

Era berean, udaltzaingoa duten 98 herrietatik 64 sartuko dira lan poltsa horretan. Izan ere, udalek autonomia dute lan poltsa horretan sartzeko edo eurena sortzeko.

Promozio horrekin, azken lau urteetan 2.124 lanpostu eskaini dira guztira: 1.549 Ertzaintzan eta 575 Udaltzaingoa, EAE-ko 53 udaletan. Honen ondorioz, azken 4 urteetan nabarmen igo da ertzainen kopurua, izan ere, 2020ko irailean Ertzaintzak 7.382 agente zituen eta, lau urte geroago, 7.765 agente.

<https://eh.lahaine.org/eusko-jaurlaritzak-ertzaintza-eta-udaltzaintzako>